

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako osasun-zentro guztiek dute erabilgarri dagoeneko aurretiazko hitzordua Internet bidez eskatzeko sistema

2013an 50.000 hitzordu inguru eskatu ziren Internet bidez familia-medikuarekin, pediatarrekin, erizaintzako kontsultetarako eta gizarte-langileekin.

Viernes, 21 de febrero de 2014

Lehen mailako arretan, aurrez hitzordua Internet bidez eskatzeko sistema erabilgarri dago Nafarroako oinarrizko osasun-barruti guztietan, baita kontsultategien gisako osasun-zentroetan ere.

Hala, osasun-txartela duten herritar guztiek familia-medikuarekin, pediatarrekin, erizaintzako kontsulta edo



Kontsulta mediko bat.

gizarte-langileekin hitzordua Internet bidez eskatu ahal izango dute, www.navarra.es edo www.citasalud.navarra.es gunean.

Aurretiazko hitzorduaz gain, sistemak bestelako izapideak egin eta zerbitzuak eskatzeko aukera ematen du osasun-zentrorra joan beharrik gabe, esate baterako, medikuaren altak, ohiko erabilerako errezetak, osasun-egoeraren, ezintasunaren edo urritasunen txostenak, telealarma, egoitzetarako onarpenak, mendetasun-aitorpenak, aldizkako analisietarako paperak, ospitaleratutako pazienteen bajak, bisak berritzea, farmakoak, ambulanzia edo oxigenoa.

Internet bidez aurrez hitzordua hartzeko sistema erabiltzeko, osasun-txartelaren zenbakia eta jaiotze-data idatzi behar dira; bestela, ordenagailuan ziurtagiri digitala instalatuta izan behar da. Segurtasun-arrazoiengatik (genero-indarkeriaren kasuan edo adingabeen zaintzan), azken hori derrigorrezkoa izango da egiteke dauden hitzorduak ikusi edo aldatzeko.

50.000 hitzordu telematiko inguru 2013an

2013an aurretiazko 49.993 hitzordu eskatu ziren guztira Internet bidez. Horietatik 31.817tan, familia-medikuarekin kontsulta izatea eskatu zen, 12.455 kasutan pediatarrekin, 5.633 kasutan erizaintzako kontsulta izateko eskatu zen, eta 28 kasutan gizarte-langileekin.

Internet bidez hitzordua aurrez eskatzeko sistema 2011ko otsailean hasi zen bost osasun-zentrotan (Antsoain, Ermitagaña-lruña, Atarrabia,

Tafalla eta Tuter-Mendebaldea), pazienteen irisgarritasuna hobetu eta hitzorduen izapideak arintzeko, bai telefono-bidezkoak bai osasun-zentroetan aurrez aurre egindakoak. Sistema bigarren fase batean zabaldu zen, hurrengo hilabetean Foru Komunitateko 12 osasun-zentrotan ezarrita. Gainerako zentroetara pixkanaka hedatu da, aurtengo urtarrilean, Ixabakoan ezarri ondoren, sistema osasun-zentro guztietan abian izan den arte.